

11 ARABA

Urkate ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Ibilbidea Urkilla mendilerroaren hego mazaletik doa. Nabarmena da bertan ameztien gerrikoa (*Quercus pyrenaica*).

Besteak beste, haritz kandugabearen (*Quercus petraea*) ale zoragarriak daude, lizarrekin (*Fraxinus excelsior*)

lehian, eta seiehun eta berrogeita hamar metrotik gora, pagadia (*Fagus sylvatica*) da nagusi lur hezeagoa baita.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3,2 km



Ordu 1 eta 10 min



Udalerrria:

Asparrena

Hurbileko herria:

Arriola



Ibaia:

Urkate



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo. Lurrezko bideak, bidexka



784 m

↗ 179 m



647 m

↘ 65 m



Urkate ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Urkate ur-jauzia Arabako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdeko koadrantean dago, Arabako Lautada eskualdean, Asparrena udalerriko Arriolatik gertuko. Urkila mendilerroaren hego isurian. Arriolara heltzeko, A-3012 errepidea hartuko dugu eta gero, A-4019tik jarraitu.

Arriolako hiribarnetik ikuztegiara doan bidea hartuta, lurzoru oneko pista bati jarraituko diogu seiehun eta berrogeita hamar bat metroan, ibilgailua uzteko egokia den ordoki txiki batera heldu arte.

Bertatik, oinez edo bizikletaz jarraitu beharko dugu.

Pistan aurrera eginda, amezti ikusgarri batean sartuko gara.

Erreka baten ibia zeharkatuta, zortziehun bat metro eginda gero, Barrutia erreka gaineko zubiraino helduko gara. Ibaiertzeko landaredia egoera onean dago, bestea beste, haltzak, hurritzak eta lizarrak.

Zubia baino lehenago, bidearen ezkerrean dagoen bidexka bati jarraituko diogu erriberan barna.

Metro gutxira, inguruan ugari diren haritz erraldoiak ditugu lagun.

Pistari jarraitu eta bat koma bederatzi km-ra bidebanatze bat aurkituko dugu.


Pista utzirik, aldapa goxoko bidexka bati ekingo diogu, harizti zoragarri bat zeharkatzeko.

Bostehun bat metro egindakoa ibaira helduko gara. Emariak uzten badigu, zeharkatu eta saroi bateraino helduko gara.

Aldamenean, Arriolako ur-biltegia ikus dezakegu.

Bidexkan aurrera, ur-biltegiaren ondotik gailurrera helduta, ur-jauziaren ikuspegi zoragarria daukagu begien aurrean.

Ibilbidea edozein urtarotan egin daiteke, baina elurren urtze garaia da ikusgarriena.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztia hemen:



Wikiloc

Urkate ur-jauzia



Urkate ur-jauzia

